



"Gazteen indarkeria: jatorria, izaera, indarkeria motak eta prebentzioko eta esku hartzeko estrategiak" ikastaroen balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak 2022ko formakuntza planeko lehenengo hiru ikastaroak antolatu ditu

'Gazteen indarkeria: jatorria, izaera, indarkeria motak eta prebentzioko eta esku hartzeko estrategiak' ikastaroak antolatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak urtarrilean eta otsailean zehar Bilbo, Donostia eta Gasteizen. Formazio honen helburu nagusia zera izan da, elkargune bat ahalbidetzea gazteekin lan egiten duten langileek aukera izan dezaten gazteen indarkeriazko jokabidearekin zerikusia duten alderdi guztiak elkarrekin aztertzeko eta eztabaidatzeko, bai eta esperientziak partekatzeko ere.


Ikastaroa **Hilario Garrudo Hernándezek** eman du, psikologo klinikoa, psikoterapeuta eta prestatzailea.

45 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 70, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 30 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.

Ikastaro bakoitzak 10 orduko iraupena izan du, bi egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta